

Inazio Guridi Zumalde

*Oñati, Gipuzkoa
(1919-2010)*

Aurkibidea

Biografia



Larraña auzoko Urikoazpikoa baserrian jaio zen 1919an eta bertan bizi izan da beti. Ama Gesaltzakoa zuen eta aita bertakoa. Kalera joaten zen eskolara, lehenbizi maristetara eta gero agustinoetara. Aitarekin ikasitako gurdizain lanean ibili izan da beti. Oñatin egin izan den idi-proba lehiaketa bakarra berak irabazi zuen, 1952 inguruan. Olabarrieta auzoko Etxebarrikoa du emaztea eta seme bat izan dute.

Zintak

ONA-064

- **Proiektua:** Deba eskualdeko ahotsak - Oñati
- **Elkarrizketatzailea(k):** Agirrebeña, Aintzane - Elortza, Kepa
- **Data:** 2008-12-22
- **Iraupena:** 62 min
- **Euskarria:** MiniDV
- **Kodifikatzailea:** Elortza, Kepa
- **Transkribatzailea(k):** Elortza, Kepa

ONA-065

- **Proiektua:** Deba eskualdeko ahotsak - Oñati
- **Elkarrizketatzailea(k):** Agirrebeña, Aintzane - Elortza, Kepa
- **Data:** 2008-12-22
- **Iraupena:** 20 min
- **Euskarria:** MiniDV
- **Kodifikatzailea:** Elortza, Kepa
- **Transkribatzailea(k):** Elortza, Kepa

Pasarteak

1. Etxeko maiorazkoa

- **Erref:** ONA-064/002
- **Iraupena:** 0:03:28. **Hasi:** 00:03:30. **Bukatu:** 00:06:58
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserría » Baserriko lanak » Lurra lantzea
- Baserría » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua

Laburpena:

Zazpi anai-arreba. Basoan lanean hil zitzaion anaietako bat. Iñaxio zen etxeko maiorazkoa. Mutikotatik lanean, laia batekin egiten zuen laian biekin gauza ez zelako. Goldean geroago hasi ziren.

Transkripzioa

- Eta umetan zelakua zan hemen bizimodua? Zenbat anai-arreba ziñazien?
- Lau anai eta hiru arreba. Hurringua, bigarrena dau fraide eta Zarautzen dau, Zarautzen ha be izatez hermanua dau baiña Zarautzen eta hirugarrena oin ezkondata, oin Donostian, bueno, kalia bizi zan hemen baiña oin Donostian dau, ta laugarrena berriz, lau anae illaran, eta laugarrena ha gazterik hil zan soldauzkatik etorri ta gero ofiziuari ebillela hortxe, enda aritzak botaten eta basuen ebillen ta arotzerixarako ikasten ta egurra bota ta gero soilketan ebillela egurrak buelta in eta salto in bihar eta bixkar hazurretik zertuta urte betian edo egon zan baiña hil zan.
- Lanian, e?
- Lanetik behintzet. Santa Mariñako arotzerixia euen hor ta hareitxekin ebillen ta ...
- Piokin-ta? Santa Mariñan Pio ez ebillen arotz?
- Pio bai baiña, Pion zera, Koixkargua ta horreik apartauta egozen euren artian enda han ebillen ta gero hil zan eta gero arrebak berriz bat ezkondata hor dau, hona zerien, behera Aitzeko zerien, Koixkarguakin

ezkonduta eta beste bat, hurringua, harek Irungua dako andria, gizona, ta bestiak berriz ha Zubillagakuakain oin Donostian bizi dira, bai, holaxe, danok.

- Eta zeu zara zaharrena orduan?

- Zaharrena, bai, zaharrena.

- Maioreszgua.

- 'Maiores asto', maioreszgua, garai bateko maioreszguak geozenok hala izaten ziren.

- Orduan umetan tokauko jatzun lana itxia, ezta? Biharra itxia baserrixan.

- Lana, horixe ikasi geben guk, gure zeori hori izan zan, lana! Aguro, laixan be bi ibiltteko kapaz ez eta laixa batekin ibillitta nau e? Bi ibiltteko kapaz ez mutikua eta illaran jasarri ta laixa batekin, iñ in bihar.

- Zelan itxen zenduen laixan? Zela izaten da? Nik ez dot sekula ikusi.

- Zuek entzun bakarrik; oin telebisiñuan botatakua bai, Arrasateko zerekit ez dakit ze herriakua zan baiña herri, lehenauko fiesta zerak eta, bi laiaquin itxen zan. Dra in ta drau honutz in ta gero sartu ta dau, buelta emun, lurrari, lehenauko garai horreitan horixe zan.

- Orduan boldarik ez euen ala?

- Gero, orduan ez, baiña gero boldan be bai, nik urten nebanian orduan boldia be baeuen, boldan gero.

2. Gari tresneria

- **Erref:** ONA-064/003

- **Iraupena:** 0:02:34. **Hasi:** 00:06:58. **Bukatu:** 00:09:32

- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Baserriari lotutako lanbideak
- Baserria » Baserriko lanak » Lurra lantzea

Laburpena:

Gari lanetarako erabiltzen zuten zenbait erremintari buruz hitz egiten du. Peoi gisa behin bakarrik egin zuen lan; industrian berriz, behin ere ez.

3. "Karreteroak" (gurdi-zainak)

- **Erref:** ONA-064/004

- **Iraupena:** 0:04:00. **Hasi:** 00:09:32. **Bukatu:** 00:13:32

- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Baserriari lotutako lanbideak

Laburpena:

Larrañako baserriar asko jardun ziren gurdizain lanetan; herriko zerratokietara egur garraioan batez ere. Bere aita ere gurdizain izan zen eta hari jarraitu zion ofizioa. Neguan "banastaginentzak" (otzaragileentzak) materiala ekartzen zuten. Ingurua nola aldatu den; garia kaleraino egiten zen.

Transkripzioa

- Hemen auzo honetan garai baten karretero asko euen ba.

- Karreteruak? Bai. Gu ibiltten giñan karreteruak Urubil, Irazabalgua,

Elorduikua ta Errekalde be bai, danak, toki guztittan, leku guztittan euen

idixak eta zerak.

- Eta ze jenero karriaitten zeuein?
- Jeneralian piñuetan ibiltten giñan, onena piñua bota eta Mugartzari zerrara edo Santa Mariñara edo hola karriuan.
- Egur karriuan orduan?
- Egurra, tronko burdixakin, tronkua aurrekaldian ipiñi eta atzekaldian sei-zortzi bat metro inguruko zerak ekarten ginduzan zera, behera, ta gure bizi guztien idikin betik karretero. Aitta zenetik gero neu. Jeneralian esatea aitta pelotarixa bada, semia be pelotarixa; ba gu be aitta karreterua, neu be karretero gero, kitto! Gure akademixiori hori izan da. Lana.
- Eta beste materialik, beste jenerorik karriaitten zeuen, egurra kenduta?
- Gutxi, janeralian piñua, jeneralian gu piñutan ibiltten giñan.
- Eta ikatz edo etxiak itteko harrixak edo materiala-edo, ez?
- Ez, hola etxiak bigaren bat zeren baterako bai, baiña bestela ez. Gutxittan hartzen geben gaiñetiko zerik. Eta neguan ba zestuak itteko banastagiñak itteko zera, ondagaixak, gaztañia. Zortzi urtetik behin jotzen zan gaztañia. Zortzi urtien utzi eta gero ebaki-ta, edo zimitzak atara ta banastak itteko, edo eskarpak bertan ifintteko ta ... banastagiñak Oñatittik asko egoten zan orduan, kalia be Mendiko Kalia be egongo ziren dozena erdi bat, sei bat.
- Eta horreintzako materiala zeuek ekarten zeuein?
- Etxe danetan itten zan. Neguen ez zan oporrik egoten, eguraldi ona egon ezkerro, basora aide! Basuan izan da gure zeori, ibillaldi edo gure gizaldixori.
- Eta ze karriatzen zenduen, zeuen terrenuetatik egurra ekartzen zenduen?
- Bai, norberak, danak daku euki hemen bizittako danak zatixak partittuta ta ondagaixak jo ta, oin berriz gero botikia botata zeraketan, ihartzen, piñua ataratzeko ta holaxe.
- Eta gero karriatzen zenduzen kalera, eta nora? Taillerretara-edo?
- Mugartzan zerrara, han Olakuan zeuen aldapia presa be baitta, harutz be bai, ta Santa Mariñara-ta ...
- Hementxe be beuen ba, Akelena ostien beuen ba zerria garai baten?
- Akelen ostien iñeuen, hona, ziran han, hona Antzuelastik, Antzuelasen goixan beratzi beziño egozen hor goixan, beratzi edo hamar beziño goixan. Eta hareittako bat ba kalera etorritakuan ba haraxe, harek eta zerria ipiñi euen han, Akelen etxe ostian, bai. Oin ez dako lehengo antz haundirik baiña.
- Ni mutikua nintzanien ezagutu neben dana kañaberaz jositta euen ha, zerra ostia kañaberaz jositta eta oin dana etxia.
- Oin dana etxia.

4. Eskolara kalera

- **Erref:** ONA-064/006
- **Iraupena:** 0:05:11. **Hasi:** 00:16:37. **Bukatu:** 00:21:48
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola

Laburpena:

Eskolan Maristekin hasi zen. Eskolara bidean kalera esnea eramaten zuen marmitatan. Gero Agustinoekin ere ibili zen ikasten.

5. Etxeko abereak

- **Erref:** ONA-064/008
- **Iraupena:** 0:03:17. **Hasi:** 00:22:47. **Bukatu:** 00:26:04
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserría » Baserriko lanak » Baserriko animaliak

Laburpena:

<p>Etxean ganaduak eta idiak zituzten. Astoa hainbat lanetarako erabiltzen zuten:arropak garbitzeko, errotara aleak eramateko eta errekaduetarako, besteak beste. Esnea saltzen zuten kalean. Ardirik ez zuten izan lñaxioren garaian.</p>

6. Babarrunak eta gaztainak

- **Erref:** ONA-064/009
- **Iraupena:** 0:02:29. **Hasi:** 00:26:04. **Bukatu:** 00:28:33
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserría » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua

Laburpena:

Ortuko gauzak jaten zituzten. Babarruna zen jaki nagusia eta neguan berriz gaztaina.

7. Auzoko ermita San Lorentzona

- **Erref:** ONA-064/010
- **Iraupena:** 0:03:20. **Hasi:** 00:28:33. **Bukatu:** 00:31:53
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Auzoak

Laburpena:

<p>San Lorentzokoa da Larraña auzoko ermita. Beraz, jaiak San Lorentzo egunean ospatzen dituzte. Aurreko Mendiko baserri batzuk Larraña auzoan sartzen dira. Igandeetan kalera jaisteko ohitura izaten zuten.</p>

Transkripzioa

- Eta Larraña auzuak ermittia-edo nun daka? Ermittia eukiko dau, ez, auzoak, elizia-edo?
- Elizia San Lorentzon, San Lorentzo ...
- Baiña ermittia, San Lorentzoko ermittia Larrañakua da?
- Bai, bai, Larrañan dago ha. Oin Larraña beheko auzua eta goia itteu ta Larraña da.
- Eta honeik Antzuelas etxe honeik-eta, horreik zer dira, Larraña dira? Aurreko Mendixa dira? Horreik zer dira?
- Mendikuak? Mendixan egozen behian Beitti, Antzuelas Beitti, gero Etxeberri ha nire gogua baiño lehentxuau inddakua izan bihar eben. Eta Antzuelasen bi bezino, Eltzikorta, Sarramendi, Koroso, Lizargarate eta Olabarrin bi bezino, beste bi bezino; horreik danok hor Mendikuak danak

ziren auzo hontakuak, Larrañakuak.

- Sarramendi be hemen sartzen zan?
- Sarramendi be bai, Sarramendi eta Lizargarate be bai, Larrañan sartzen zan. Koroso eta horreik danok.
- Eta Koixkar ia Garibain?
- Koixkar, Koixkarrera gu ez giñan sartzen, Koixkar eta horreik beste batzuk ziren.
- Horreik Garibai izango ziren.
- Garibai edo alde hortara behintzet, ez dakit ze auzotara joten dauen baiña. Horreik Koixkar ta Duruan-ta, zera be bai, goiko ...
- Ez, Etxezuri ha Zubillagara. Azkazuri!
- Azkazuri ta Zubillagara joko daue horreik.
- Eta orduan San Lorentzuak zelebrauko zenduezen, ez?
- San Lorentzo betik jai, hori bai, San Lorentzo bai.
- Eta ze jai itten zan auzuan, lehen?
- Agustuan hamarra San Lorentzo.
- Baiña ze egoten zan jaixetan?
- Zainketan ba ermittia zainketan iñobez. Bertako aldameneko bezinua, San Lorentzokua. San Lorentzoko Danbolin (baserrixa) bezinuak, oin beheko auzuori dana desapareziu zan etxiak indda.
- Baiña ze egoten zan San Lorentzo egunian mezia goizian eta...?
- San Lorentzo egunian mezia eta ...
- Musikarik-eta egoten zan?
- Bai, soiñujolia egoten zan. Gero itten geben gure gazte denporan, Mugartzan zerran be bai itten geben geuk bezperan garbittu eta zera in ta San Lorentzon edo Mugartzan zerra azpian eta hemetik aldian egoten zan estalpeia ta hantxe.
- Erromerixia?
- Erromerixia in ta ba horixe.
- Baiña bakarrik San Lorentzo egunian?
- Hori San Lorentzo egunian eta bixaramonian be bai jeneralian itten ziran harreik.
- Eta domeketan eta dantzarik?
- Ez, ez, domeketan eta jaitan ez zan egoten.
- Baiña orduan kalia egongo zan musikia.
- Kalia bai.
- Faten ziñain kalera? Domekatan faten ziñain kalera?
- Domeketan kalera, hori izaten zan zeori, gure ibilbidiori.

8. Auzoan jende gutxiago

- **Erref:** ONA-064/012
- **Iraupena:** 0:03:31. **Hasi:** 00:34:26. **Bukatu:** 00:37:57
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Auzoak

Laburpena:

Lehen auzolanean egiten zituzten behar asko. Gaur egun, Larrañan bizi diren auzotarren kopurua jaitsi egin da, baita ganaduarena ere. Nahiz eta Urikoan behi batzuk izan oraindik, egun etxerako esnea kaletik ekartzen dute. Arrasateko San Tomas jaietakoa zen inguruko feria nagusia.

Transkripzioa

- Eta lehen esan dozu bidia eta ez zegoela oingo moduko bidia-eta, eta horrek bidiok auzolanian itten ziran?
- Bai, hemen jeneralian auzolanian eta gero pistia itteko eta zerketako eskabadoriakin ibilli ziren ta gero zerak, basora eta pistak in ta beste batzuk besoz be bai, Azargaratera eta Kortaerrekara eta horreik besoz inddakuak.
- Lehen asko itten zan hola auzolanian?
- Asko horixe, bueno!
- Eta zuk ze uste dozu, oin jente gehixao bizi dala lehen baiña Larrañan, edo gutxiao-edo?
- Ze jente gehio?
- Jente gehixao bizi dan Larrañan oin edo lehen bizi zan jente gehixao edo oin bizi da jente gehixao? Edo antzera?
- Ba, etxe baikotzian famelixa haundixak jeneralian izaten ziren ta betik jentia. Hemen gutxittu ba goixan be iñobez ta oin Urubillen be ba danok kalian nola bizi diran ba, batzun batzuk etorri itten dira baiña etxe danetan mobimentua egon baiña bestela jente gutxiau.
- Baiña ganaua ta hola lehengo modura ez.
- Ganaua gero eta gutxiau, ganauak be hementxe Idiazabal edo Pullanguan bi, Erbiñian beste bi, Leibarren bapez, ardixak bakarrik, enda Kortan be ez, Ogixaan be ez, Garaikuo Aldekuan be ez, ba hementxe gerian ta Elorduittan ta hortik aldekuak Errekalde ta Idiazabaletan be badaoz, baiña gehittuaz ez, gutxittuaz.
- Zeuek badakotzue ondiok orduen ganauak?
- Bai, hiru behi hor daude.
- Eta ondiok be marmittatan eruaten dozue esnia kalera?
- Oin? Bai, ezta jaitzi be! Ezta jaitzi be! Txahalak eurak eman dezala eta kitto! Etixerakua be kaletik ekarri esnia.
- Etxian eukitta?
- Etxian ez dou sekula etxerako zerik itten. Betik kaletik ekarri eta arrea!
- Eta ferixetara eta joateko ohitturarik eta bazakazuen?
- Oin urte bi edo hiru badira ez naizela jun be in, jun ta ezer itten al da ba ferietan be?
- Baiña lehenau juaten ziñazien ferixetara?
- Bai, ferixara horixe, ferixa egunori haxe izaten zan, ta gero meriendau edo in ta.
- Eta zein izaten zan hemen ingurutan ferixarik inportantia?
- Hemen inportantiena Mondrauen, gaur be Santomas gaur Mondrauekua, Mondrauen Santomas egunian normala izaten zan fatia.
- Santa Lutziara fango ziñain.
- Santa Lutzia joku gutxi euki neben nik, oso gutxi. Jun bai baiña urte gutxittan eta gaiñera honeik aglomeraziño haundi honeik ez xat sekula gustatu izan neri.

9. "Karretero" lanak

- **Erref:** ONA-064/015
- **Iraupena:** 0:03:42. **Hasi:** 00:41:04. **Bukatu:** 00:44:46
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserría » Baserriko lanak » Baserrinari lotutako lanbideak

Laburpena:

<p>Gurdizain edo "karretero" lanak nolakoak ziren aipatzen du. Lauzpabost idi pareko kuadrillan egiten zuten pinu-egur garraioan, Larrañako basoetatik kaleko zerrategietara. Egurraren punta bat gurdian eta bestea herrestan garraiatzen zuten.</p>

Transkripzioa

- Eta ikazkintzan edo ibili zara iñoiz? Basuan ibiltzen ziñazien egurra karriatzen eta, zeu ikatza itten ibilitta zare?
- Ikatzetan ez, ez naiz ibili, ez.
- Ez? Karerik eta itten zenduen etxian?
- Karerik be ez. Karerik be ezta.
- Osake karriuan, eta ze ibiltzen ziñazien, aitta eta bixok-edo? Egurra karriatzen aitta ta bixok ibiltzen ziñazien?
- Kuadrillia ibiltten giñan piñutan, ta honeitxek Elorduikuak eta Urubil, Idiazabal, ta gu laurok ibiltten giñan jeneralian, Errekalde be bai beste ekiñaldi baten ta ...
- Eta baikotza idi pare batekin?
- Baikotza idi pariakin. Danok, hemen idi bariko etxiak egongo ziren haxe aldekoa, Ogixaa, Kortan be ez, eta beste etxe danetan idixak. Hemen egon ziren garai baten.
- Eta piñuok osorik jaisten zittuein kalera edo zatittuta-edo?
- Jeneralian erdittik bi indda, maritimuman hola izaten zan, gero insignisa be bai, "siete cincuenta" edo zortzi edo zazpi edo hortxe, segun kurba edo zerik, zeuen tokian ebaki eta halaxe.
- Eta aldiko zenbat?
- Aldiko jeneralian karga ederra izaten zan, burdi motxa izaten zan ta entradako zera ekarteko eta aurrekaldian trangero batekin eta trangeruan gaiñian jarri ta puntia tarraz, gero Mugartzan zerrara eruan bihar izaten zan zeretik, hona, kamiñora han ermittatxo bat egoten zan garaitxo baten, San Lorentzoko parian karretera ondoko behian, eta oin ha bota ta ez dot uste ezer egin zanik, ta han karrotxua ekarri zerratik eta karrotxuan hona, egur baten gaiñian igoten zebein, karrotxua sartu azpira eta handik zerrarakua eruaten gendun puntia karreteran ez tarraz erutiarren.
- Puntiarri txirrikak ifiñi.
- Bai.
- Eta aldiko zenbat piño?
- Hiru. Hiru egurrekin izaten zan, egur normalak, hiru egurrekin beteten zan egurra eta gero gaiñian puntak edo zerian bota ta ha izaten zan kargarik onenori. Kargarik onena jeneralian, ta holaxe.
- Eta hemen inguruetan kargatzen, osea piñudixak hemen inguruetan zekazuezen?
- Hemetik gora, danian.
- Bidea eukiko zenduela ezta, zerrara iño?
- Hemetik ez, hortik izaten zan zerrara pasua edo handik. Hemetik guretik ez zan, gero hori kamiñua in zan baiña gero handik, gero hortik ...
- Eta Oñatiko terrenotatik betik edo Legazpi aldetik be bai?
- Legazpiko mugan dakogu guk, badakogu oin terrenuak, hona, Legazpi partian be bai pagoduitxo bat, pago-txara su egurretako jotzen dana haxe, eta beste bat garai baten, hona, ardi pastuakatik edo erosittakua, han hamalau sozio uste dot gariela ta Legazpin. Eta beste terreno bat Antzuelan be bai, Antzuela partian Arrolamendi zerian.
- Eta horreittatik be ekarten zeuein egurra?
- Ez, horreittatik ez.
- Horreittatik ez, piñua beherao horreik baiño?

10. Larraña auzo zabala

- **Erref:** ONA-064/016
- **Iraupena:** 0:03:30. **Hasi:** 00:44:46. **Bukatu:** 00:48:16
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Auzoak

Laburpena:

San Balandran, Azalditako txabola inguruan abuztuan ospatzen zen jaia oso jendetsua izaten zen. Nahiz eta askok jakin ez, gaurko Oñatiko San Lorentzo eta Olakua auzuneak Larraña auzoaren barnean daude.

11. Kale baserriak

- **Erref:** ONA-064/018
- **Iraupena:** 0:03:29. **Hasi:** 00:50:32. **Bukatu:** 00:54:01
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Aldaketak eta arazoak

Laburpena:

Oñati zeharo aldatu da. Lehen herrian kale baserri asko zeuden baina haien ordezkale etxeak eraiki dira. Toki Ederreko hormak egiteko materiala berak garraiatu zuen. Hormagintzan ere lan egin zuen.

12. Garbitzera erredera

- **Erref:** ONA-064/021
- **Iraupena:** 0:05:00. **Hasi:** 00:56:47. **Bukatu:** 01:01:47
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserrria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua

Laburpena:

Garai batetan "bozaderatik" hartzen zuten ura; gero "bozaderatik" ponpaz ura andel txiki batera igotzen zuten eta bertatik hartzen zuten. Teilatutik ere hartu zuten beranduago eta azkenik mendiko iturri batetik ekarri zuten ura etxera ur-hodien bitartez. Garbitzera erredera joaten ziren. Jolasera "Pullanguaren" ondora joaten ziren.

13. "Cuba" taberna

- **Erref:** ONA-065/001
- **Iraupena:** 0:04:08. **Hasi:** 00:00:00. **Bukatu:** 00:04:08
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Taberna giroa » Tabernak eta jatetxeak

Laburpena:

Torrerako bidean etxe baten kantalean zegoen "Cuba" izeneko taberna txikian elkartzen ziren "karreteroak", lana bukatu ondoren.

Transkripzioa

- Lehen esan doskue karreteroak "Cuba" tabernan juntaitten ziñaziela.
- Cuba etxia izaten zan guretako. Illunkaran basotik etorri, idixak bialdu etxera eta Cubara tragua hartzera. Hori seguru.
- Han karretero danak juntaitten ziren?
- Ba gu kuadrillia beti Cubara.
- Amerikano bihurtu arte ixa.
- Bai, antzera.
- Karretero asko zeguan herrixan? Karretero jente gehixau be bazauan?
- Bai, bastante asko, bai.
- Eta Cuban ze itten zeuein, jan, eran, musian, kantuan?
- Musian ta ez,ez, hori ez. Gu hona, bokaillua ekarten eben arreban batek- edo ekarten eben bokaillua hartu edo bestela idixen buruan ibilitta ta gero han trago bat jo eta kitto, etxera. Goizian listo ibili bihar, goizian ganauari jaten aurretik emun bihar, gobernau eta ondo jaten beuen artian conforme. Idiekin lana txarra izaten zan.
- Eta hor Cuba, nik ez dot ezagutu Cuba tabernia, ze zan, taberna haundixa edo ze?
- Keba, holakotxe zer txiki bat, hutsa. Onddiok Karmen biziko dok hangua, hau, zeren andria, ez xat akordauko ta. Han Torrera doian bidian aldamenian.
- Nun dauen, nun egon zan badakit, baiña neuk ez dakot goguan.
- Ba hantxe hutsa baiña, holako taberna txiki bat. Hau sukaldiau asko gehixau ez.
- Eta mahairik eta holakorik ez?
- Baazen, ardaua zertu ta itteko, hona, mostradoria eta aldamenian mahai bat edo bankua jasarri eta hantxe.
- Ardaua zela egoten zan, barrikatan edo zela egoten zan?
- Leheningo zeretari, bertakuak, harek saraixetan ekarten eben Edmundo Geretanetik. Gereta.
- Edmondonetik hara ekarri eta saraittik ...
- Gero saraittik etaraten eben pitxarrera edo botillara baiña handik.
- Zuk lehen esan dozu Hillariona-ta horreik be ...
- Hillariona eta horreik, Hillariona geruaukua zan. Cuba, gu han egoten giñan Cuban.
- Eta Elvirana zer da, Cuba baiño barrixaua?
- Geruaukua.
- Elvirana ezautu naben.
- Elvirana hori Kortabarrikuakin ezkondu zan, enda zerien eukein Goñiñeko zerian Kale Nagusian, enda handik gero ezkondu zanian honutz, hori Kortabarriko etxia nola zan, hemen oin Mendiko Kalian dakon ezkiñakua ba ha gero etorri zan.
- Taberna eta almazena eta dana eukan.
- Almazena eta danak hor, eta bizittera be horraxa etorri ziren.
- Eta hori Cubako hori ze moduko, ez dakit, mostradoria zelakua zan edo. Ze zan kuadraua-edo?
- Keba, holakotxe mostradore bat ze bat eta bestekaldera mahaixa eta erateko bankuak edo ze bat, asientuak indda ta hantxe ze bat, kitto. Ha izaten zan gure egonlekuori.

14. Idiak gidaririk gabe etxera

- **Erref:** ONA-065/002
- **Iraupena:** 0:04:06. **Hasi:** 00:04:08. **Bukatu:** 00:08:14
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Taberna giroa » Tabernak eta jatetxeak
- Baserria » Baserriko lanak » Baserriari lotutako lanbideak

Laburpena:

Lanean bustitzen zirenerako, idien buruan eramaten zituzten aldatzeko arropak. Hori zen karreteroan aldagela. Laneguna bukatzen zuenean, Santa Mariñako plazatik idiak etxera bidali eta eurak "Cuba" tabernara joaten ziren etxera itzuli aurretik. "Cuba" taberna itxi zutenean "Xabalonera" joaten hasi ziren, perratoki aurrealdean zegoen tabernara.

Transkripzioa

- Eta egunero joaten ziñazien?
- Sarritan bai, segun zela gabiltzen lanian, lanian ibilli ezker harutz.
- Eta han jarri, deskantsua hartu eta tertulixan?
- Mundua goberanau edo zera in.
- Eta zuek klaro, zuek ez zeuen biheko kalera fateko jatzetxerik ez zeuen biheko, ezta?
- Idixen buruan ibiltten geben guk, hona, sarritan bustitta igual, hona, idixakin ibilitta bai, eta aldatu ta ia arriua konpletua idixen buruan, kaltzak eta oiñetako zerak abarkak zerak-eta, hareik idixen buruan ibiltten ziren hareik, idixen buruan.
- Zuen jatzetxia idixen buruan zan?
- Idixen buruan. Idixen buruan han zertu eta bustitta edo zera bageozen, di-da!
- Kontau oskun Miel Jauregialtzokin egon giñan oin dala hamabost egun-edo? Hiru aste-edo? Eta eurena zala sarramenditarren edo ez dakit noren jatzetxia zala.
- Bai, haik klaro, aurrerakuan, zerana, ldefontsona, banastagiñan.
- Bai, banastagiñan. Eta orduan klaro, zuek ez zeuen bihar jatzetxerik, idixan bazeukein ba...
- Ez, ez, gu handik... Santa Mariñatik danak harutz.
- Zeatik hor, Akelena ta lehenao Simona bizi zan etxia eta horreik be jatzetxiak izaten ziren, ezta? Beste Mendiko...
- Mendiko etxiak kuerton bat edo trasten bat eukitten euen oiñetakuak aldatu ta kalera mezetera edo juteko.
- Ze ibiltzen ziñazien bestela, beti abarkekin.
- Orduan abarkia izaten zan gure denporan. Epoka txarra egon zan hor danak puskatu itten zirela kubiertia zertu ta ... bai zera, hona, lurrakin inddako gomak eta hareik puskatu itten ziren segittun ta bueno ...
- Eta alfarketak-eta ebalten zittuein?
- Alpargatak-eta bai, baiña gutxi.
- Eta zapatak?
- Zapatok e ...
- Kalera juateko?
- Kalera juteko zerak, ta kalera juteko bidiak nolakuak? Senda koxkor bat zerak eta bueno, danak losakin inddako zerak norbera ibiltteko, personak ibiltteko.
- Baiña horra, Cubako kontuakin, idixak etxian itxitta faten ziñain hara? Edo ...

- Etxera Santa Mariñatik bialduta etorten ziren hareik! Baikotza bere etxietara. Horixe, irakutsitta, hareik ...
- Zuek zerratik etorri ganauakin, ganauak etxera bialdu eta zeuek tabernara?
- Geu tabernara. Etxian zenonak ba eskatu eta bere tokira joaten ziran ganauak, idik eta.
- Ganau formalak zekazuezen orduan.
- Irakutsi in bihar ondo.
- Eta denpora asko pasatzen zenduen han? Denpora asko egoten ziñazien tabernan, han Cuba tabernan?
- Illuntzian sartu eta barriketia nora juten zan.
- Eta noiz juaten ziñazien, illunkaran-edo?
- Illuntzian, bai. Illuntzian jeneralien. Gero Cuba zarratu zanian, zarratu zan gure aitta hil zan urtia ez jakiat ez zan. Bai? Eta ha zarratu zanian Xabalonera, perratoki aldamenian, aurrekaldian zeona, Xabalona. Hantxe, harutz faten giñan harutz.

15. Idi-probetan parte hartzera

- **Erref:** ONA-065/003
- **Iraupena:** 0:03:39. **Hasi:** 00:08:14. **Bukatu:** 00:11:53
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kirola » Herri-kirolak

Laburpena:

Etxeko idiak harriari tiratzeko gauza zirela probatu ondoren San Isidroetako idi-probara aurkeztu ziren auzoko hiru baserritako idi pareak. Proba egunean, kaleko ukuilu baten utzi zituzten idiak, proba aurretik meza entzutera joateko.

Transkripzioa

- Oñatiko idi probatan zer? Premiso asko atara zittun-edo?

- Lehenengoa atara gendun behintzet.

- A, bai?

- Idi proban. Ondiok hau beheko Idiazabal eta biok jun giñan, hona, leheningo in gendun Santa Mariñan, harri ha ez dakit nun dauen baiña, harrikin prueba. Prueba itteko, ez genekien idik ibiliko zuten, harria ibiliko zuten ala ez, eta zera lehen, San Isidro egunian zan ta aurretik, Oñatin zenbat idi zeuen ordun, garai horretan ikaragarri egon be, eta Arrasate Mondrauera jun ziren ferira eta feritik etorri, Txarridunian egon eta zera, hona, Sindikatuko Juanek esan, baiña, San Isidro egunerako plazan idikin in bihar zala prueba, harriekin arrastaka in bihar zala ta, baiña Oñatin gu idi probara? Hola zera ta, eta zertu, harek animatu zittun hona, gure aitta eta Idazabalgua eta Elorduiko ta ferien Mondrauen egondakuak danak. Enda gabian hamabixak inguruan aitta etorri xatan, hona, "zer?" "jaiki!" "ze ba?" Ta "oin?" eta Mondrauen egon zirala eta idiak probatzera joan bihar zula, hona Santa Mariñara, harria ibiltzen zuen ala ez probatzeko. Ta "baiña oin?" "Mondrauen ala Santa Agedara zeatik ez zai jun?" ondiok neuk erantzun notsan. Eta, "ez", "bueno, aldatu, juan ikuillura eta lotu idik" eta juan nitzan, aitta eta biok zerokin Santa Mariñaraiño, ta probatu ta ibilli hartu gendun harriori, erantzi eta ibilli han Santa Mariñako arboladui barrenien orduen kaltzada nola zeon, kaltzadan ibilita "aprobado"; gure hurrengo bestia, harek be igual-igual, Idiazabalgua be, danak ibiltten ginddun, gu hirurak Idiazabalgua, Errekalkedua eta gu, hiru idi pariak

aprabau San Isidro egunian itteko. Bueno, gero San Isidro egunerako ze zan ta, hona, beste bat agertu zala Araozko Joxe Txikiña, Jose Txiki berriz ta, harek ba orduan leheningo jokatu daixela berak, Joxe Txiki, ta horixe in zien kastigau, "ya que" gu apuntauta geontzen eta ha gero ha, eta ha etorri eta leheningo harek, ta ni ibilli nintzan goizian, bi goizian, ta orduan lau idi pare ba, bi goizian eta bi arratsaldian itteko. Goizian fan giñan eta onddiok meza aurretik Santa Mariñara eruen idik eta Mikelen zerien, ikuillura sartu, sartu idiak enda mezetara.

16. Idi-probetan Iñazio txapeldun

- **Erref:** ONA-065/004
- **Iraupena:** 0:04:57. **Hasi:** 00:11:53. **Bukatu:** 00:16:50
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kirola » Herri-kirolak

Laburpena:

<p>Meza ondoren idiok lotu eta herriko plazara jo zuten. "Joxe Txiki" araoztarrak ekin zion goizean probari. Iñaxio bigarrena izan zen, araoztarraren marka gaituz. Gero lau parte-hartzaileak bazkaltzera joan ziren elkarrekin. Azkenean, Iñaxiok irabazi zuen. 1952. edo 1953. urtean izan zen gertaera hori. Idi-proba bakarra jokatu da Oñatin eta Urikoko idiek irabazi zuten bertan.</p>

Transkripzioa

- Mezia akabo zanian etorri, lotu idik eta plazara, leheningo ordutik araoztarrak Joxe Txikik in zun ta harek in zun ta hurringu gu ta neri orduan kutxillua sartzen banosten ez zezen odolik etarako, hori garbi, jo! Eske, plazan han jente guztia begira, bueno, bueno, ekin giñan gure taktikia zan Joxe Txikin marka apurtzia, horixe zan zeori, enda ekin giñan ta hala ibiltzen harriori ta aprobau, apurtu in gendun zeori, gero arratsaldian bestiak. Bazkaltzera onddiok jun giñan zerian, hona, kalia zerian, oin perratzaillien tabernia baxaok ba, han bestekaldetik Inesena edo tabernia euen, eta Inesenian bazkaria. Gu inda geukelako, hona, gere ekiñaldixa inda geukelako ja baiña gere lekutik urtenda, jana sobrau! Ezta bazkaldu ez gendun, eta bestiak berriz, gero artian in bihar zutenak! Hareik esaten euezen beste hainbeste, eta hareik itteko nola zeuden eta danok pasatu giñan pasatuta gere tokittik. Holaxe ba irabazi gendun ta.
- Ze in zenduen, batzuk goizian eta bestiak arratsaldian.
- Bai, bai.
- Enda orduan denporarik gehixen edo metrorik geheixen zeuenak arrastau eben?
- Bai, periodikua be gurian han egongo dok periodikua ordukua.
- Ze urtetako kontua da hori?
- Ez dakit ze urtetan, ja urtiak juanda dakot, ixa urte mordua hori.
- (Semia): "Cincuenta y dos" edo izango da. "Cincuenta y dos- Cincuenta y tres" holakon bat. Berrogeita hamabigarren urtia edo berrogeita hamahirugarrena.
- Periodikua hor xaok, "La Voz de España"
- Eta harrezkero beste idi proba batzutan egon zara?
- Ez.
- Behin bakarrik?
- Behin eta haxe in gendun. Besterik ez.

- Behin in eta irabazi.

- Zeiñek irabazi, ha zereko premixua zan, baserritarren zerian ba, "Cámara Agraria" edo ez dakit zer, harek itten oskun premixuori. Dana, geuk xemikorik be kobratu ez, gero hurringu egunetan, hurringu urtietan, bazkaltzen edo meriendan bat inda, hartan gastatu zan han irabazittakuori. Eta goguan dakot zera, idi proba in bihar zan probalekuori neurtzera, hona, zenbait metro zeukan luzeera harri hori ibiltzeko eta Idiazabalgo Manuelek eta bixok Bergararan bagekixen idi probaren probalekuak zenbat zeukan ta joan giñan biok neurtzera; zeon feria, metruakin neurtzen ezin ibiliko gaittuk behintzet eta pausoko neurri gendun Bergarako zeori eta atzera pausoko leku honenbeste pauso, honenbeste pauso Txurrukan aurrekaldeko zerian, ta batetik bestera barrenien, plaza barrenian, hona, hainbeste neurritz eta hantxe markak in eta kitto, halaxe in zan prueba. Hori goguan dakot.

- Eta zenbat denpora in zenduen, zenbat... bakoitzak?

- Ez dakit zenbat denpora izaten zan.

- Ordu laurden?

- Ordu laurden edo zenbat izaten zan be, ez dakit. Ez dakot idearik be.

- Eta hori ze izan zan hori, Oñatin in zan kanpeonatu, urte hartan bakarrik ala urtero itten zan?

- Keba, urte hartantxe eta kitto! Gehio ez da in.

- Okurridu ta in ta ...

- Ez dakit harria nun dauen be oin. Lehen Santa Mariñan egoten zan baiña oin ez dakit nun dauen be.

- Hori ez zan izango han frontoian, Gernikako arbolaren onduan egoten zan harrixa?

- (Semia): haxe.

- Bera?

- (Semia): haxe izan biok.

- Onddiok han xaok ha? Ez nauk aspaldixan fijau.

- (Semia): Gernikako arbolaren aldamenien.

- Lehen halako tipo hortako hari bat baxauan han.

- (Semia): haxe izan biok.

- Orduen Oñatin idi probia behin bakarrik jokatu da?

- Orduentxe.

- Eta bera Urikok irabazi?

- Bai, bai, irabazi, haxe in zan.

- Klaro, oin ya gaiñera ezin leike in holakorik.

- Oñatin bazaguan garai hartan idia. Bueno, bueno! Ha in zan eta ba kitto. Jentia etorten bai, hemetik aurrera makiña bat prueba edo desafio izango dek, eta ezta gehiorik ere. Ez jokalaria ez e, Azpitti aldian eta beste toki batzutan izaten diren modura, baiña holaxe.

17. "Berrehun Dios" gaitzizena

- **Erref:** ONA-065/006
- **Iraupena:** 0:01:05. **Hasi:** 00:17:50. **Bukatu:** 00:18:55
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Gaitzizenak

Laburpena:

Aloña" tabernan, (Inesena), bazkaldu zuten idi-proba egunean. Inesen senarra "Berrehun Dios" gaitzizenez ezagutzen zuten Oñatin.

Transkripzioa

- (Semia): han bestekaldian, makiñak konponketan ibilli zana, Idaho, gero tabernia eta sala de fiestasa euki ebena, pare-parian dauena bidien bestekaldetik, haxe zan Aloña, zuek jaten zebein lokala ...
- Aloña izena eukana.
- Zuk 'Inesena' esaten dozuna.
- Bai, Inesena.
- Ines zan ezta, hango zeori?
- Bai, hango zeori. Eta Ines horren gizona zan enkargau ibiltten zana hemen, Donostiako ez dakit zer holako industria, obratako zeren bat, berrehun dios esaten otsain bere esaeria jentiarri lana eragitten ibiltten zan ha bai, eta harek zeukan gaitzizena jarritta.
- Berrehun dios?
- Berrehun dios. Famelirik ez dot uste izan zuenik, zahartuta ezkondu zen Ines ta.

Ahotsak.eus-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.
2026-03-07

CC-by-sa | Ahotsak.eus
Badihardugu Euskara Elkartea
Markeskua Jauregia, 20600 Eibar
943121775 - ahotsak@ahotsak.com